

## Irakaslearendako erantzunak

JOANNE KATHLEEN ROWLING

1.- Zenbat urte ditu gaur egun Joanne Kathleen Rowlingek?  
40 edo 41 urte (2006an)  
41 edo 42 urte (2007an)...

2. Non jaioa zen Diana, Joanneren ahizpa? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	Denda batean
<input type="checkbox"/>	Ospitalean
<input checked="" type="checkbox"/>	Etxean
<input type="checkbox"/>	Eskolan

3.- Nor edo zer da "Bloomsbury"? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	Idazlea
<input type="checkbox"/>	Auzokidea
<input type="checkbox"/>	Liburu-agentea
<input checked="" type="checkbox"/>	Argitaletxea

4.- Irakurri ondoko hiru esaldiak eta esan zeinek adierazten duen hobekien Harry Potterren liburu bildumaren ideia nagusia (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	<ul style="list-style-type: none"><li>Hiltzaile bihozgabe batek ihes egin du Azkabango espetxetik, eta aske dabil Hogwartsen inguruetan.</li></ul>
<input checked="" type="checkbox"/>	<ul style="list-style-type: none"><li>Ile beltzarana eta betaurrekoak dituen gaztetxo benetako azti bilakatuko da, Aztien eta Sorginen eskolan ikasita.</li></ul>
<input type="checkbox"/>	<ul style="list-style-type: none"><li>Ron eta Hermione Harryren benetako lagunak dira, eta beti arituko dira horren alde.</li></ul>

5.- Esan esaldi hauek egia edo gezurra diren: (E/G)

G	Joanneren gurasoek Bristolera zihoan trenean ezagutu zuten elkar.
E	Joanneren lehenengo oroitzapena ahizpa jaio zen egunekoa da.
G	Joannek eta Dianak etxeko eskailerak gorrotatzen zituzten.
G	Argitaletxeek berehala argitaratu zuten Harry Potterren liburua.
E	Joanneren ama berrogeita bost urte zituela hil zen.

6.- Ordena itzazu pasarte hauek, denboraren arabera:  
(1. 2. 3. 4.).

3	Portugalera bidaiatu nuen, ingeles irakasle aritzera.
1	Aita eta ama Londreskoak nituen.
4	Argitaletxe anitzek atzera itzuli zioten nire lana.
2	Di ahizpak oso iluna zuen ilea, ia beltza.

7.- Deskribatu, txikitan, nolakoa zen Joanneren eta Dianaren arteko harremana. Idatzi Joannek azaltzen dituen kontrajarritako bi sentimendu, hau da, bata bestearen aurkakoa:

*Ulermen sakona* – Testuan agertzen diren bi sentimenduak ondo adierazten ditu, eta bi sentimendu horiek kontrajarriak dira. Adb.: “Elkarri mokoka aritzen ginen eta lagunik minenak ginen”.

*Ulermen ona*- Testuan agertzen diren bi sentimendu ondo adierazten ditu, nahiz eta biak ala biak positiboak edo negatiboak izan batera. Adb.: “Elkarri mokoka aritzen ginen eta Diri gauzak jaurtitzeko baimendua zegoen bakarra ni nintzen”.

*Gutxienezko ulermena* – Erantzunak sentimendu bakar bat baino ez du azaltzen, nahiz eta ondo adierazitakoa izan.

8.- Joannek berak nahi zuena ikasi zuen Unibertsitatean? (Erantzuna argudiatu):

*Ulermen sakona* – Testuan agertzen diren bi argudio ondo adierazten ditu, eta bi horiek kontrajarriak dira. Adb.: Gurasoek premiatu zuten probetxuzko hizkuntza modernoa (frantsesa) ikasteko, eta horren alde on bat izan zuen: Parisen eman ahal izan zuen ikasturte bat.

*Ulermen ona* - Testuan agertzen diren bi argudio ondo adierazten ditu nahiz eta biak ala biak negatiboak izan, batera. Adb.: Gurasoek behartu zuten eta probetxuzko ikasketak egitera behartu zuten.

*Ulermen txarra* – Nahi izan zuena ikasi zuela probetxuzkoa zelako, edota Parisera joan nahi zuelako ikasi zuela frantsesa...

9.- "Atzizkiak" hitzen bukaeran doaz, eta lanbideak, pertsonen ezaugarriak, propietateak, tokiak, eta abar adierazteko balio dute. Testuan badira batzuk (-tasun, -tzaile, -garri, -lari, -keria, -kide). Idatz itzazu hirugarren orrian agertzen diren bost horietakoak.

aztikeriak	hegalari	adiskide
urduritasuna	hiltzaile	zaintzaile
maitasunak	adiskidetasunak	gaztetasunean lehentasuna

10.- Irakurri duzun testu hau interneten aurkitu dugu. Zein da testu honen helburu nagusia? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	Telebista programa bat iragartzea
<input checked="" type="checkbox"/>	Idazlearen bizitza eta lana ezagutaraztea
<input type="checkbox"/>	Pelikula baten berri ematea
<input type="checkbox"/>	Liburuen salmentak sustatzea

11.- Joannek idatzi dituen Harry Potterren liburuak ikusita, zeren arabera eman dituzte argitara? Zer ordena jarraitzen dute? (Jarri X erantzun egokiaren laukian).

<input type="checkbox"/>	Harry Potterren adin diferenteen arabera (jaiotza, haurtzaroa, nerabezaroa...)
<input checked="" type="checkbox"/>	Aztien eta Sorginen Eskolako ikasturteen arabera.
<input type="checkbox"/>	Harry Potterren abenturen eta pasadizoen arabera.
<input type="checkbox"/>	Aztien eta Sorginen Eskolako ikasgaiak eta irakasleen arabera.